Puntuaren balioa zehazteko, eragiketa hau egingo da: atal honetako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa zati onartutako eskaera guztiei esleitutako puntu kopurua. Eskaera bakoitzak eskuratutako puntuen batura izango da dirulaguntza, lehen aipatutako mugak kontuan izanda.	Para determinar el valor del punto se dividirá el montante global de las subvenciones de este apartado por el número de puntos asignados a todas las solicitudes admitidas. La subvención será la suma de los puntos obtenidos por cada solicitud teniendo en cuenta los límites anteriores.
Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko, aurkeztutako aurrekontuaren defizita hartuko da aintzat.	A su vez, para establecer la cuantía de la subvención se tendrá en cuenta el déficit del presupuesto presentado.
14.Pertsona/entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak	14.Obligaciones y compromisos de las personas/entidades beneficiarias
- Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.	- Redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.



- Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da. Ezingo da irudi diskriminatzaile edo genero-estereotipotik erabili, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak dituen irudia sustatu beharko da.	- Emplear un uso no sexista del lenguaje, en la documentación, publicidad, imagen o materiales generados en el marco de la actividad subvencionada, evitándose cualquier imagen discriminatoria o estereotipos de género, y se fomentará una imagen con valores de igualdad, diversidad e inclusión.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari.	- Comunicar al órgano concedente o la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada.
- Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein.	- En general, cualquiera otra recogida por la normativa reguladora de subvenciones.
15. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa	15. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales
1. Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena.	1. Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.
2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza,	2. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos



laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.	o recursos supere el coste de la actividad subvencionada.
3. Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da.	3. Para la comprobación de esta limitación, se habrá de justificar la totalidad del gasto subvencionado.
4. Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzeko bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsi beharko dizkio.	4. Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación.
Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.	No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el Importe total del exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo.
16. Dirulaguntza ordaintzea.	16. Abono de la subvención.
Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak eskaeran egindako aukeraren arabera, bi modu izango dira.	El abono de la subvención se realizará, en función de la opción realizada por el beneficiario en la solicitud, de dos formas.
1. Emandako dirulaguntzaren % 75 ematen den unean ordainduko da. Gainerako % 25a ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartzen duenean, betiere justifikatzen badu behar duela finantzaketa hori proposatutako jarduerak egiteko.	1. El 75 % de la subvención concedida se abonará en el momento de la concesión. El 25 % restante tras la previa presentación de la justificación y aprobación por el órgano competente, siempre y cuando se justifique debidamente que necesita la financiación para realizar las actividades planteadas.
2. Ordainketa bakarra justifikazioaren ondoren: Dirulaguntzaren % 100 ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartu ondoren.	3. Pago único tras justificación: El 100 % del pago de la subvención se realizará previa presentación de la justificación y aprobación por el órgano competente.
17. Dirulaguntzaren justifikazioa	17. Justificación de la subvención
1. Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen	1. La beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad



jarduera; baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.	subvencionada, así como los gastos generados por dicha actividad.
2. Justifikaziorako baliagarriak diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta:	2. Los documentos que sirvan para la justificación pueden obtenerse en la sede electrónica del Ayuntamiento, entrando en la línea subvencional correspondiente:
3. Dokumentu hauek aurkeztu behar dira 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen:	3. La documentación por presentar antes del 31 de enero de 2026 será la siguiente:
a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak.	a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. De acuerdo con el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en la memoria se presentará la información desagregada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado, de las personas titulares y trabajadoras, y del personal contratado por la entidad para la prestación del servicio para el que se solicita la subvención.
Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta.	En la memoria deberá constar expresamente que ha sido cumplida la finalidad para la cual se otorgó la subvención y, en su caso, una evaluación de los



	resultados obtenidos respecto a los previstos.
b) GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (.xls), sinadurarik gabe.	b) El documento GAS (disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento), que contendrá una relación clasificada de gastos e inversiones, con identificación del acreedor y del documento, su importe y las fechas de emisión y de pago. El documento deberá presentarse en el formato de origen (.xls) sin firma alguna.
Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen adieraziko da.	Cuando se hubieren utilizado más de una fuente de financiación, se indicará el porcentaje correspondiente financiado por el Ayuntamiento de Tolosa en relación a ese gasto.
Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da, izandako desbideratzeak adierazita.	Cuando la subvención se conceda con arreglo a un presupuesto estimado, la relación de gastos e inversiones se clasificará también en función de las partidas del proyecto o actividad subvencionada, con indicación de las desviaciones producidas.
Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa islatu beharko du.	El importe total de gasto deberá reflejar el coste total del proyecto o actuación subvencionada.
c) BAL dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da Entitate onuraduneko presidentek edo idazkariak sinatu beharko du.	c) El documento BAL (disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento), que contendrá una relación de gastos e ingresos de la actividad o proyecto subvencionado, que deberá recogerse según el modelo propuesto. Deberá firmarlo el/la presidente/a o secretario/a de la entidad beneficiaria.



GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin.	Los importes de gasto del documento GAS deberá coincidir con los importes de gasto del documento BAL.
d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.	d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.
e) Hiru hornitzaileari eskatutako hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu. Hau da salbuespena: ezaugarri bereziak izateagatik, merkatuan ez egotea horiek egin, eman edo hornitzen dituen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egitea. Inguruabar horiek behar bezala justifikatu beharko dira.	e) Los tres presupuestos solicitados a diferentes proveedores, cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención, extremos que deberán justificarse fehacientemente.
Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:	En caso de oposición a la consulta de documentos:
A) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	A) Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social.
B) Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	B) Certificado de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento de Tolosa.
Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko «kontu sinplifikatua» modalitatea erabiliko denez, dirulaguntza ematen duen organoak gastu-frogagiriaren lagin bat aztertuko du, dirulaguntzaren aplikazioa egokia dela egiaztatzeko.	Dado que para la presentación de la justificación de la subvención se utilizará la modalidad «cuenta simplificada», el órgano concedente comprobará una muestra de justificantes de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.



Aipatutako dokumentazioa aurkeztu, eta organo eskudunak errekerimendua egin ondoren, dagokion dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da:	Tras la presentación de la documentación mencionada y realizado el requerimiento por el órgano competente se presentará la correspondiente documentación adicional:
a) Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak, aurreko b) letran aipatzen den zerrendan eskumena duen organoak berariaz eskatutakoak.	a) Las facturas y los restantes documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, requeridos de manera expresa por el órgano competente en la relación a la que se hace referencia en la letra b) anterior.
b) Dokumentazio horren ordainketen egiaztagiriak.	b) La documentación acreditativa de los pagos de dicha documentación.
Onuradunak 10 eguneko epea izango du dagokion dokumentazioa aurkezteko, aipatutako errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	El/La beneficiario/a dispondrá de un plazo de 10 días para presentar la documentación correspondiente, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación del citado requerimiento.
Jatorrizko agiri horiek korrelatiboki ordenatuta aurkeztuko dira, zenbakitutako zerrendan esleitutako hurrenkera-zenbakiaren arabera. Gastuaren faktura eta ordainagiri guztiak PDF dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira.	Dichos documentos originales se presentarán ordenados correlativamente según el número de orden asignado en la relación numerada. Todas las facturas y justificantes de pago del gasto deberán presentarse en un único documento PDF.
Egiaztatu beharreko elementu kopurua honako muga hauekin kalkulatu da:	El número de elementos a verificar se calculará con los siguientes límites:
a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak egiaztatuko dira.	a) Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25 por 100 del importe de la subvención concedida.
b) Gainerako egiaztagiriei dagokienez, elementuen lagin bat egiaztatuko da, populazio osoaren elementu kopuruarekiko, gutxienez, ehuneko hau osatzen duena:	b) Del resto de los justificantes se comprobará una muestra de elementos que al menos suponga el siguiente porcentaje respecto



	del número de elementos de la población total:
1. Frogagiri-kopurua hamar edo txikiagoa bada: 100eko 100.	1.Si el número de justificantes fuera inferior o igual a diez: 100 por 100.
2. Frogagiri-kopurua hamar baino handiagoa eta hogeí edo txikiagoa bada: 100eko 70.	2.Si el número de justificantes fuera superior a diez e inferior o igual a veinte: 70 por 100.
3. Frogagiri-kopurua hogeí baino handiagoa eta berrogeita hamar edo txikiagoa bada: 100eko 40.	3.Si el número de justificantes fuera superior a veinte e inferior o igual a cincuenta: 40 por 100.
4. Frogagiri-kopurua berrogeita hamar baino handiagoa eta ehun edo txikiagoa bada: 100eko 30.	4.Si el número de justificantes fuera superior a cincuenta e inferior o igual a cien: 30 por 100.
5. Frogagiri-kopurua ehun baino handiagoa bada: 100eko 20.	5.Si el número de justificantes fuera superior a 100: 20 por 100.
18. Dirulaguntza aldatzea	18. Modificación de la subvención
Dirulaguntza emateko ebazpena edo erabakia, onuradunak eskatuta, aldatu egin ahal izango da, baldin eta gerora sortutako eta aurreikusi ezin diren inguruabarrek dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badituzte, eta betiere, aldaketa horiek ez badituzte indargabetzen emandako dirulaguntzaren izaera eta helburuak, aldaketak ez badie hirugarren pertsonen edo entitateen eskubideei kalterik egiten, eta eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkezten bada.	La resolución o acuerdo de concesión se podrá modificar a solicitud de la beneficiaria cuando circunstancias sobrevenidas e imprevisibles supongan una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que las mismas no desvirtúen la naturaleza y objetivos de la subvención concedida, que la modificación no dañe derechos de terceras personas o entidades que la solicitud y que la solicitud se presente antes de que concluya el plazo para la realización de actividad.
19. Itzulketen araubidea	19. Régimen de reintegro
Aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira oinarri hauetan ezarritako kasuetatik eta baldintzetatik kanpo, ezarritako betebeharrak edozein betetzen ez bada, edo Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 36. artikuluan ezarritako beste edozein kasu gertatzen bada, emandako zenbatekoa deuseztatu egingo da edo itzuli egin beharko da.	La obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos y de las condiciones establecidas en las presentes bases, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones establecidas o cualquier otro supuesto establecido en el artículo 36 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, dará lugar a la anulación o reintegro del importe concedido.



Horri dagokionez, Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. kapituluan ezarritakoa aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.	A este respecto, será de aplicación lo establecido en el capítulo VI de la Ordenanza General de Subvenciones de Tolosa, así como lo dispuesto en la Ley, 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2002, de 21 de julio y el resto de normativa aplicable.
20. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea	20. Régimen de infracciones y sanciones
Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. kapituluan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.	Sera de aplicación lo establecido en el capítulo VIII de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, así como lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2022, de 21 de julio y el resto de normativa aplicable.
21. Aplikatu beharreko araudia	21. Normativa aplicable
Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:	Las subvenciones reguladas en las presentes bases se ajustarán a lo establecido en las siguientes disposiciones normativas:
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.	- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.	- Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.	- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera	- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de



instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.	las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.	- Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.	- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.
- 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.	- Plan Estratégico de Subvenciones, 2023-2025.
I. ERANSKINA: Deialdia	ANEXO I: Convocatoria
1. Xedea	1. Objeto
Deialdi honen xedea da dirulaguntza honen berri ematea: Tolosako irabazi asmorik gabeko gazte elkartu eta elkartugabeei lehia bidezko konkurrentziaren arabera ematen zaizkien dirulaguntzak.	El objeto de la presente convocatoria es dar a conocer las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a jóvenes asociados/as y no asociados/as sin animo de lucro de Tolosa.
2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida	2. Crédito y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención
Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa hogeitaba mila euro (21.000 euro), Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: 0800.481.01.33720 (2025).	La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de veintiún mil (21.000 euros) con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa: 0800.481.01.33720 (2025).
3. Pertsona/erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua	3. Requisitos que deben reunir las personas/entidades beneficiarias y forma de acreditarlos
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 4 de las bases que se publican en esta convocatoria.
4. Eskerak aurkezteko epea	4. Plazo de presentación
1. Eskerak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	1. El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	5. Documentación que acompañar a la solicitud
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 9 de las bases que se publican en esta convocatoria.
6. Balorazio-irizpideak	6. Criterios de valoración
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 12 de las bases que se publican en esta convocatoria.
7. Proiektuak egikaritzeko epea	7. Plazo de ejecución de los proyectos
Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egingo dira.	Las actuaciones objeto de subvención se realizarán entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2025.
8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak	8. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento
Kultura, Festak eta Gazteria Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.	La instrucción del procedimiento será promovida por el Área Cultura, fiestas y Juventud.
Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.	Corresponde a dicha área la valoración de las solicitudes mediante la emisión del correspondiente informe técnico.
Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.	La propuesta de la concesión se elevará a la Comisión de Valoración para emitir su correspondiente informe.
Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean: Kontu-hartzailea edo teknikaria. Saileko teknikaria. Saileko zinegotzia. Idazkaritza Saileko AOT bat.	Dicha Comisión de Valoración estará compuesta por los/las siguientes integrantes, garantizándose una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su composición, salvo justificación en contrario: El/La interventor/a o el/la técnico/a. El/La técnico/a del área. El/La concejal/a del área. Un/a TAG del Área de Secretaría.
Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-	El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará



behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los interesados en la forma que establezca la convocatoria, y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación.
Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak behin betiko ebazpena eman dezan.	Posteriormente se remitirá a la Alcaldía para que ésta, o persona en quien delegue, dicte la resolución definitiva.
9. Ebazteko eta jakinarazteko epea	9. Plazo de notificación y resolución
Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.	El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses, a contar desde la finalización del plazo para presentar las solicitudes.
Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.	La resolución definitiva será notificada a las personas interesadas.
10. Ebazpenaren jakinarazpena	10. Notificación de la resolución
Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.	A la persona interesada se le notificará resolución.
11. Dirulaguntza aldatzea	11. Modificación de la subvención
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.	De conformidad con lo establecido en el artículo 18 de las bases que se publican en esta convocatoria.
12. Helegiteen araubidea	12. Régimen de recursos
Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:	La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:
Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren	Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del



1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.	Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.	No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.
Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko edo berraztertze errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.	Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.